

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Punkaren eta heavyaren arteko orekan

Bilboko hirukote honek hainbat urte daramatza zuzenekoak eta diskoak egiten. Honako hau, hirugarrena, beraien kabuz kaleratu dute; eta iraganean iruzur egin zien diskoetxearen aurkako haserrearen adierazteko baliatu dute neurri batean. 11 kantu batu dituzte, eta beste hiru opari, 80ko hamarkadako rock urbanoaren lekuko izan nahi duen lan honetan. Barricada, Reincidentes, La Polla, Zarrapo eta antzeko taldeen oinarria dute, baina tarteka kantuei ukitu heavyagoak eta noizbehinka metaleroagoak erantsi dizkiete; punk arinenaren eta heavyaren artean oreka mantenduz. Abeslariak erregistro desberdinak landu ditu, eta kantu batean euskaraz moldatzeko ere gai dela erakutsi du. Bidegabekeriak eta harremanak dira kontakizun nagusienak, eta horretarako metafora ugari erabili dituzte.



Mejor solos que mal acompañados

Resaka

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 23'47"

10,95 euro

RESAKA

«Rock urbanoa egiten duten taldeek punkyek eta heavyek baino gehiago lantzen dituzte hitzak»

Mejor solos que mal acompañados (Hobe bakarrik konpainia txarrean baino) diozue izenburuan, baina lan honetan Reincidentes taldeko Fernandoren eta El Drogasen laguntza izan duzue.

Hitz jokoa da, aurreko diskoa kaleratzerakoan diskoe-txe batekin esperientzia oso txarra izan genuelako. Honetan lagundu gaituztenok, eta aurreko diskoan Fitok ere bai, oso lan ona egin dute; gainera ez dute trukean ezer eskatu gu laguntzearen. Oso pozik gaude.

Kalean gertatzen diren istorio gordinak, baina egiazkoak kontatzen dituzue...

Bai, bidegabekeriak, bizipenak, irakurritako kontuak... tristeak izan ohi dira, bai.

Diskoan euskarazko kantu bakarra sartu duzue, baina badi-rudi euskaraz ere ondo moldatzen zaretela. Ez duzue hala-ko gehiago idazteko asmorik?

Orain arteko diskoetan, hiruretan, euskarazko kantu bana egin dugu, gure herriko hizkuntzarekiko konpromiso gisa. Ez ditugu gehiago egiten, euskara asko hobetu beharra daukagulako, baina ahaleginetan gabilta euskaltegian. Etorkizunean zeinek daki...

Zergatik egiten du negar azaleko panpinak?

Aurreko lanarekin diskoetxeak egin ziguna irudikatu nahi genuen... ilusioa ere kendu ziguten. Panpinari begiak kendu dizkiote eta malkoak odolezkoak dira.

Bizitza biharamunarekin ikusten duzue, gauza onak dagoe-

neko igaro balira moduan?

Bai, buruko minarekin munduko arazo guztiak ikusita (kar, kar). Berez jende alaia gara, baina abestiak idaztean nahiago dugu gauzak salatzea eta ez bikotearen ilearen kolorea deskribatzea.

Rock urbanoa deritzon estiloa heavyaren eta punkaren artean dagoela esango nuke. Ados zaudete?

Ados. Punkaren jarrera duela uste dugu, baina musika landuagoa izan ohi dela, heavyaren teknizismora heldu gabe. Hala ere, beti pentsatu izan dugu rock urbanoa egiten duten taldeen hitzak punkyenak eta heavyenak baino hobeagoak direla. Guk ere ahalegin hori egiten dugu.

